

# ESKUTITZ BAT<sup>(1)</sup>



## José Zapirain adiskide leyalari

Ergobiya aldeko  
sagardotegiyan  
izandu omen ziñan  
joan dan jayian;  
berso pilla botarik  
atari aurrin,  
pachar'ederrian,  
chinparta tartian,  
pichar bat edo beste  
edan ondorian,  
ez da bat jartzekorik  
zure parian.

\*

Bejundaizula, José,  
griña jatorrian  
euskarazabaltzeko  
lege onian;  
saya zaitex orrela  
lagunen artian,

umore onian,  
urte bakoitzian,  
sagar arbola zarrak  
lora berrizian,  
pozik bizi gaitian  
gure lurrian.

\*

Eskumuñak Pellori,  
baita Batištari,  
Olegario, Gaztelu  
ta Chinchuari;  
denak aitortzen dute  
zerala gidari,  
tajuz oñ emanlari,  
non bikañ kantari,  
bersolari guztiyen  
jaun ta garailari,  
jagur, José, aurrera  
ari ta ari!

ANTONIO ARZÁC.



(1) Praiskucho-ren doñuban kantatzekua.